

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Imanol Oruemazaga Baseta

*Berriz, Bizkaia
(1931-2017)*

Aurkibidea



Biografia



Berrizko eliza ondoko Abadetxean jaio zen, amaren osaba baitzen bertako abadea. Aita Ganekoetxekoa zuen eta ama Axpekoa. Aita Berrizko zinegotzia izan zen Errepublikara garaian. Gerra sasoiaren preso hartu eta heriotz-zigorreara kondenatu zuten; hiru urte eta piku hainbat kartzelatan pasa ostean, bueltatu zen etxera. 1941ean, osaba abadea hil zenean, Abadetxea utzi eta aitaren jaiotetxera joan ziren, baina 1944an Errotabarri errota kokatu zuen bizilekua familiak. 11 urte geroztik Bergarako dominikarrenera joan zen abade-ikasketak egitera. Han urtebete egin ostean, Arteako seminariara joan zen eta handik bi urtera Gasteizko seminariara. Apaiztu zenean, 1955. urtean, Basauriko Bidebietara destinatu zuten, baina denbora gutxi egin zuen, 1956. urtean Ondarroara bidali zuten eta. Ordudanik Ondarroan egin du bere bizimodua, nahiz eta abade beharrak alde batera utzi; hala ere, herrigintzan eta euskararen aldeko lanekin jarraitu du gogotsu, besteak beste, ikastolaren sorreran eta gerraosteko Ondarroako lehen antzerkian parte hartuz. 1969an, 1970ean eta 1971n, hiru alditan preso egondakoa da beste hainbat abaderekin batera Zamorako kartzelara; bertan bizi izandakoen berri ere eman zigun egindako elkarrizketan.

Zintak

BRZ-002

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

- **Data:** 2012-06-26
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

BRZ-003

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-06-26
- **Iraupena:** 37 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

BRZ-004

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-06-29
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

BRZ-005

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-06-29
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

BRZ-006

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-06-29
- **Iraupena:** 22 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Abizena jatorrian Gerediagaoruemazaga

- **Erref:** BRZ-002/002
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:00:06. **Bukatu:** 00:01:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Imanol Oruemazaga Bazeta. Abizena berez Gerediagaoruemazaga dela dio, Gerediaga ermitaren gainekaldean dagoen Orue baserrian dute jatorria. Hango baserriko bat Berrizko Mazaga baserrira ezkondu zen. Senar-emazteen abizenak elkartu egin zituzten eta hurrengo urrats batean Gerediaga kendu zioten abizenari.

2. Berrizko Abadetxean jaioa

- **Erref:** BRZ-002/004
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:01:26. **Bukatu:** 00:02:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Berrizko elizaren ondoan jaio zen, Abadetxean. Amaren osaba bat abadea zen eta ama hura zaintzera etorri zen Axpetik. Hilerri aldetik bigarren etxea zen beraiena. Oraindik ere Jesusen bihotzaren irudia omen dago atean, bere haurtzaroan bezalaxe. Aita Garaikoetxekoa zen.

3. Aitak palaz jokatzeko aukera, operan abestera joanda

- **Erref:** BRZ-002/005
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:02:54. **Bukatu:** 00:04:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kirola » Pilota
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Aita harakina zen eta Zaldibarren zeukan harategia. Guridiren `Mirentxu ´opera Bilbon estreintzeko koru bat sortu zuten eta aita ere eraman zuten, abesten ona zelako. Han pilotan jokatzeko aukera izan zuen eta horrela hasi zen palaz jokatzeko. Bilbon eta Madrilan jokatu zuen `Berriz ´izenarekin. Garai hartan modan zegoen herriaren izenarekin jokatzeko.

4. Aita pala jokalaria profesionala

- **Erref:** BRZ-002/006
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:04:53. **Bukatu:** 00:06:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Aita pala jokalaria profesionala izan zen. Bigarren mailako atzelari onena zen eta bera jartzen zuten mugarritzat, lehenengo mailara igotzeko. Ezkondu ostean utzi egin zuen; antza denez, amari gehiegizkoa iruditu zitzaion pilotalekuko giroa (oihuak, irainak...).

5. Perosiren Meza abesten zuten hiru ahotsetara

- **Erref:** BRZ-002/007
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:06:16. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Berrizen beti egon da pilotarako zaletasuna. Berasaluzetarren aitona `Txikito de Mallabia´. Imanolen aita tenorea zen, `Txikito de Mallabia´ bigarren tenorea eta Berrizko medikua baxua. Perosiren meza abesten zuten hiruren artean hiru ahotsetara, berak organoarekin lagunduta.

6. Errepublikako sasoian "goia" eta "behea" Berrizen

- **Erref:** BRZ-002/009
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:10:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Berrizen "goia" eta "behea" zeuden sasoi batean: goia eliza ondotik gorakoa eta behea Olakueta ingurua. Olakueta inguruan sortu zen industria eta bizimodua ere burgesia txikiaren antzekoa ei zeukaten. Errepublikako sasoian Imanolen aita zinegotzi izan zen, "goitarrek" aukeratuta. Alkatea ANVkoa zen. Bazeuden alderdi politikoak, baina indar gutxi zuten sasoi hartan.

7. Markesari esker salbatu zen aita heriotza-zigorretik

- **Erref:** BRZ-002/010
- **Iraupena:** 0:06:05. **Hasi:** 00:10:04. **Bukatu:** 00:16:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Gerra sasoian errefuxiatu asko etorri zen Gipuzkoa aldetik. Gobernuak zerbitzu bat jarri zuen haiei jaten emateko. Udalak "Abastos"eko arduradun moduan ipini zuen Imanolen aita. Bilbon zegoen batean atxilotu eta heriotza-zigorra ezarri zioten. Amaren osaba abadea oso maitea zuten Berrizko markesaren etxean eta amona ere oso etxekoa zen. Hari esker salbatu zen aita.</p>

8. Berrizko markesak

- **Erref:** BRZ-002/011
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:16:09. **Bukatu:** 00:17:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Berrizko markesen inguruko kontuak. Emaztea alargun ezagutu zuen berak; kanpotarra zen. Udara pasatzera urtero joaten ziren Berrizera. Elizaren albo batean beraientzat leku berezia zeukaten.

9. Berrizen jende asko atxilotu zuten gerra sasoian

- **Erref:** BRZ-002/013
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:18:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita zinegotzia izan zen Berrizen Errepublikako sasoian. Abertzalea zen, baina ez zegoen EAJn afiliatuta. Jende asko atxilotu zuten gerra sasoian, baita jende arrunta ere, errefuxiatuei jatekoa emateagatik bakarrik. Ezagun bat aipatzen du. Batzuk fusilatu ere egin zituzten.

10. Aitari ezarritako bi heriotza-zigorren "arrazoiak"

- **Erref:** BRZ-002/014
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:18:55. **Bukatu:** 00:20:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita gerra sasoian "Abastos"eko arduradun moduan ipini zuen Udalak, errefuxiatuentzat jatekoa bideratzeko. Horretarako, 5000 pezeta ematen zizkieten. Atxilotu zutenean, bi heriotza-zigor ezarri zizkieten, bata frankismoaren kontra egiteagatik eta bestea Udalaren dirua euskal gobernari ematea leporatuta. Diru-kontuak jasotzen zituen libreta Bilbon zeukan, baina inork ez zuen begiratu.

11. Aitaren itzulera, kartzelan egon ostean

- **Erref:** BRZ-002/016
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:25:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Aita 1939an itzuli zen Berrizera, hiru urte eta gehiago kartzelan egon ostean,

kilo asko galduta eta oker-oker eginda. San Pedro bezperan askatu zuten Oviedon eta San Pedro egunerako Berrizera joan nahi zuen, ezpata-dantzan ari ziren bitartean eliza ondoan agertzeko. Baina ez zen goizean iritsi, tren bat galdu zuelako Bilbon. Arratsaldean, iritsi zenean, izugarrizko harrera egin zioten.

12. Aitak pasatako kartzelak; Aita Bolinaga Burgosko kartzelan

- **Erref:** BRZ-002/017
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:25:25. **Bukatu:** 00:27:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Aita zer kartzelatan egon zen. Lehenbizi Larrinagan, Bilbon. Gero, probisionalki kartzela moduan prestatu zuten Upo-mendi barkuan, Deustun. Handik Burgosera eramán zuten, handik Astorgara eta, azkenik, Oviedora. Burgosén egon omen zen okerren. Abade euskaldun bat zegoen bertan: aita Bolinaga. Nolako sermoi gogorak egiten zituen.

13. Aita kartzelan zegoenean, komunikazio gutxi

- **Erref:** BRZ-002/018
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:27:38. **Bukatu:** 00:29:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita kartzelan egon zenean, ez zuten eskutitz bidezko komunikaziorik, dena ahozkoa zen. Larrinagako kartzelara osaba joaten zen normalean; tartean behin ama ere bai. Burgosera amaren lehengusu pasiotar bat joan zen. Bestela ez zuten aitaren berririk izaten. Lekuz aldatzen zutenean handik edo hemendik jakiten zuten, baina ez beraiek abisatuta.

14. Aita kartzeletako koruan kantuan

- **Erref:** BRZ-002/019
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:29:04. **Bukatu:** 00:31:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita Burgosko kartzelan zegoenean, zuzendariaren semea hil zen frontean. Burgosko katedralean egin zioten hileta eta Imanolen aitak, beste batzuekin batera, Perosiren Meza kantatu zuen. Kamioietan eramán zituzten, eta herritarren iruzkinak entzun zituzten: "¡pero si no tienen rabo!". Gerora,

Astorgan ere koruan kantuan jarraitu zuen aitak. Han Aste Santuko prozesioetara atera zituzten. Jendearen ikusmina.

15. Oviedon presoak hondakinak ateratzen

- **Erref:** BRZ-002/021
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:31:57. **Bukatu:** 00:34:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Oviedo zeharo apurtuta geratu zen gerra sasoian. Presoak jartzen zituzten hondakinetatik adreiluak ateratzen. Aita lan horretan zebilela, gizon batek ezagutu egin zuen, anaiaren antz handia zuela eta. Imanolen osaba kantari ona zen eta, Milanen ikasten egon ostean, Kubara joan zen. Antza denez, han ezagutu zuen gizon horrek.

16. Abadetxetik Ganekoetxera eta handik Sarria auzora

- **Erref:** BRZ-002/023
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:34:54. **Bukatu:** 00:36:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aita preso egon zen sasoian, Abadetxean bizi ziren, amaren osaba abadearekin. 1941ean, osaba hil zenean, handik alde egin behar izan zuten eta Ganekoetxera joan ziren. Euren baserría eta Berrizko beste asko Manso de Zuñiga familiarenak ziren, baina pixkanaka baserri horiek saltzen joan ziren. Kontratu batek zioen Oruemazagatarrak bizi ziren artean, ez zituztela Ganekoetxetik botako, baina ez zen kontratua errespetatu. Orduan, Sarria auzoan zuten beste baserri batera joan ziren bizitzera.</p>

17. Arrierrekaren aberastasuna; errotak

- **Erref:** BRZ-002/026
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:37:11. **Bukatu:** 00:38:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Berrizko Arrierrekan euren baserriaz gain (Errotabarri), beste hiru errota

zeuden gutxienez. Euren baina gorago zegoen Errotatxun errota desegin eta zentrala egin zuten. Durangoko Mendizabal lantegi ezagunarentzat argia bertatik ematen zen.

18. Errotabarri baserrian denetariko lanak egin behar

- **Erref:** BRZ-002/027
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:38:12. **Bukatu:** 00:40:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Errotabarri baserrian zeuden erreteroez ez zuten handik irten nahi, errota negozioa zelako. Epaitegira jo zuen aita eta epaileak jarritako baldintza gutxienez bost urtean baserria berak erabiltzea izan zen. Ondorioz, gogor lan egin behar. Aita idiekin goldaketan nola ibiltzen zen. Amak bazuen baserriko lanen berri. Berak, etxean zegoen denboran, denetarik egin behar. Seminaria joan aurretik azkenengo lana Oiz mendian segarekin ira ebakitzea izaten zen.

19. Morcillo Bilboko obispoarekin harremana

- **Erref:** BRZ-002/028
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:40:37. **Bukatu:** 00:43:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Gasteizko seminarioan zegoela, uda batean apaizgaiak Saturrarana eraman zituzten hamabost egun pasatzera. Gazteak ziren eta bikain pasatu zuten, baina bera etxean baserriko beharretan ari zirenekin akordatzen zen. Hurrengo urtean Morcillo Bilboko obispoari eskutitza idatzi zion bere egoera azalduz. "Herri Gaztedi" ren sorrerako mugimenduetan Bilbon elkartu ziren batean, obispoarekin hitz egiteko aukera izan zuen eta harremana sortu zen euren artean. Luze hitz egin omen zuten.</p>

20. Langile-herri batera joan nahi zuela esan zion obispoari

- **Erref:** BRZ-002/029
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:43:31. **Bukatu:** 00:45:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Abade egiteko sasoia iritsi zenean, apaizgai guztiei banan-banan galdera bera

egin zien Bilboko obispoak: ea zerk egingo lieken ilusioa abade-etxera joandakoan. Berak langile-herri batera joan nahi zuela esan zion, izan ere, bazekien bera Ondarroara eraman nahi zutela, organista lanera. Bidebietara (Basauri) bidali zuen eta oso gustura egon zen bertan.

21. Obispoa aldatzean, Basauritik Ondarroara

- **Erref:** BRZ-002/030
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:45:22. **Bukatu:** 00:47:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

1955ean Morcillo obispoak Bidebietara bidali zuen, berak hala eskatuta, baina hamaika hilabete besterik ez zituen egin han. Obispoa aldatzean, Gurrupide obispoak Ondarroara bidali zuen. 1956a zen. Udalak 15.000 pezeta ordaintzen zituen organista lanagatik, baina hala ere negarrez joan zen, Basaurin oso gustura zegoelako.

22. 11 urterekin seminaria joateko erabakia

- **Erref:** BRZ-002/033
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:49:13. **Bukatu:** 00:51:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ez daki nondik sortu zitzaion abade joateko bokazioa, baina berak erabaki zuen. 11 urterekin Bergarako seminaria joan zen. Uda etxean pasatu eta seminaria joan aurreko egunean beti arrautza frijitua patatekin afaltzeko. Gurasoek beti galdetzen zioten ea gustura zebilen.

23. 1943an gose handia pasa zuen Bergarako seminarioan

- **Erref:** BRZ-002/034
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:51:03. **Bukatu:** 00:53:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

1943an Bergarako seminaria joan zen. Gose handia pasatu zuten. Behin Elgeta alderako bidean zehar paseatzera eraman zituzten; sagasti bat ikusi eta sekulako triskantza egin zuten. Jangelan seiko mahaietan egoten ziren.

Lapikoan lekaleak baino salda gehiago. Txandatu egiten ziren mahaia zerbitzatzeko. Han urtebete egin ostean, Arteako (lehen Castillo-Elejabeitia) seminaria joan zen eta handik Gasteizkora.

24. Gerraosteko gosea Errotabarrira joandakoan amaitu

- **Erref:** BRZ-002/037
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:55:51. **Bukatu:** 00:58:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Ogi-gosea edukitzen zuen beti eta berarentzat oparirik onena amak egindako ogia izaten zen. Gerraostean gose handia pasa zuten, Berrizko Abadetxean bizi ziren sasoian. 1944an joan ziren Errotabarrira bizitzera. Baserria nolakoa zen eta nolako inpresioa egin zion seminariotik etorri zenean. Hara joan zirenean kendu zuten gosea.</p>

25. Aitak errota martxan jarri eta bezeroak erakartzea lortu

- **Erref:** BRZ-002/038
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:58:28. **Bukatu:** 01:01:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Aita gizon abila izan zen eta, ideiarik eduki barik, aurrera atera zuen errota. Etxea eta errota apurtuta utzi zizkieten eta, gainera, jendeak txarto ikusten zituen, errenteroa bota egin zutela eta. Pixkanaka hasi zitzaizkien bezeroak etortzen eta azkenean Garai aldeko guztiak erakartzea lortu zuen, aitak oso irin fina egiten zuelako. Lehenbizi alea galbahean pasa, zikin guztiak kentzeko, eta gero toberara. Errotarriak. Errotaren inguruko azalpenak.</p>

26. Guardia zibilen onespenearekin, gauez errotan lanean

- **Erref:** BRZ-002/039
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 01:01:22. **Bukatu:** 01:04:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Gerraostean errota itxita egon ziren. Durangon garia ehotzeko baimena zuten bakarrak "Lapikona" eta Imaz lantegiak ziren. Gerora, tranpak egiten

hasi zen jendea, garia ezkutuan ehotzen. Guardia zibilak garai batean astebeteko ibilbideak egitera behartzen zituzten eta, gainera, pasatako lekuetan sinadura behar zuten, handik pasa zirela ziurtatzeko. Errotabarrira ere maiz joaten ziren eta batzuetan lotan geratzen ziren. Haien onespenezekin isilpean errota erabiltzen zuten gauez. Errotariak baserritarrek egiten zuen tratua: hamarretik bat errotariarentzat. Astoekin etortzen ziren baserritarrak.

27. Etxeko txakurra, gurasoak plazatik itzultzeko zain

- **Erref:** BRZ-002/040
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:04:37. **Bukatu:** 01:05:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, errotera

Laburpena:

Larunbat guztietan gurasoak Durangora joaten ziren "plazakoa egitera", karroa hartuta. Etxeko txakurra goiz osoan Garai aldera begira egoten zen eta hamaika eta erdiak aldera bidera ateratzen zitzairen gurasoei. Handik etxeraino karroaren aurrean saltoka joaten ei zen.

28. Inguru askotatik Arrierrekako errotetara

- **Erref:** BRZ-002/041
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 01:05:52. **Bukatu:** 01:06:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Garai aldeko jendea joaten zitzairen Errotabarrira errotara. Mallabia aldetik ere joaten ziren Arrierrekako errotetara, Anportara adibidez.

29. Arrierrekako ura ondo aprobetxatuta

- **Erref:** BRZ-002/042
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:06:53. **Bukatu:** 01:08:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Erreka oso aberatsa zen Arrierreka, ur askokoa. Horregatik jarri zituzten "saltoak" bertan. Oiz mendian zeuzkaten ur-deposituak. Gainera, dena lotuta zegoen: Errotatxutik zetorren ura euren antaparara joaten zen, handik errekarra eta ehun metrora beste antapara batera sartzen zen. Antapara urtero garbitu behar izaten zen, hondar askoko lekua zen eta.

30. Artoa, ondo aprobetxatuta

- **Erref:** BRZ-003/006
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:08:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Artoaren garaua errotara eramaten zuten; txokorrak jolaserako erabiltzen ziren jaietan; artoaren orriak abereei ematen zizkieten; malutak Ondarroan amuetan ipintzeko erabiltzen zituzten. Arto bizarrekin ezer egiten zutenik ez dauka gogoan.

31. Tabakoa erein, lehortu eta erre

- **Erref:** BRZ-003/007
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:08:36. **Bukatu:** 00:10:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

Tabakoa ereiten zen baserrietan. Gero lehortu egiten zuten. Bere etxean ez du ezagutu. Adineko jendea ezagutu zuen orriekin eta etxeko tabakoarekin zigarroak egin eta erretzen. Banaka batzuek pipa erabiltzen zuten. Hamabost urte ingururekin zigarroa erre zuen baina harrezkero ez.

32. Seminarioko latinoak, filosofoak eta teologoak

- **Erref:** BRZ-003/009
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:12:31. **Bukatu:** 00:14:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Seminarioan lehenengo bost urteetan zeudenei latinoak esaten zitzaaien, latina ikasten zelako. Beste hiru urtez, filosofia ikasten zuten eta azken lau urteetan teologia. Seminarioa ordaindu egin behar izaten zen; baten batek beka emanda joan zen bera.

33. Seminarioan futbolari onak

- **Erref:** BRZ-003/010
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:14:03. **Bukatu:** 00:17:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Arropak norberak eramaten zituen eta garbiketako gauzak ere bai. Sotana lehenengotik janzten zuten seminarioan; futboleak asko jokatzen zuten eta urtero txapelketa egiten zuten. Gogoan dauka fraka motzekin jokatu zutenean, kontrola egiten zietela, frakak belaunetarakoak izateko. Setien gotzainaren kontra jokatu zuen behin. Seminarioan zegoen garaian, Alaves lehenengo mailan zebilen eta partida bat irabazi egin zioten. Bere taldea oso ona zela dio. Abarketekin jokatzen zuten.

34. Seminarioko irakasleak gogoan

- **Erref:** BRZ-003/011
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:21:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Jose Luis Ansorena irakaslea dauka gogoan, onenetakoa beretzat. Idazketa sakratuko irakasle bi aipatzen ditu, era zaharrekoa bata, era berrikoa bestea.

35. Seminarioan euskaraz, ezer ere ez

- **Erref:** BRZ-003/012
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:21:11. **Bukatu:** 00:23:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Seminarioan akademiak bat zeukaten, ikaskideek sortutakoa, euskara lantzeko. Karrera amaierako sermoia gazteleraz egin behar izaten zuten. Euskaraz bere burua alfabetatu zuen.

36. "Jaunaren sehaska inguruan", lehen antzezlanak euskaraz Ondarroan

- **Erref:** BRZ-003/013
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:23:54. **Bukatu:** 00:27:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

1957an antzerkia euskaraz egin zuten Ondarroan, Gabonetan, "Jaunaren sehaska inguruan" obra, Agustin Zubikaraina. Baimena eskatu behar izan zuten, lehenengo "Información y Turismo" ministerioan eta gero poliziari, eta behartu egin zituzten gazteleraz ere zerbait egitera. Guardia Zibilek kontrolatzen zuten. "GAO" (Ondarroako talde artistikoak) izan zen

antolatzailea eta ondoren, Kresala elkarte bihurtu zen. Leku askotara joaten ziren antzerkia egitera.

37. Antzerki emanaldiak egiten herririk herri

- **Erref:** BRZ-003/014
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:27:32. **Bukatu:** 00:30:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Zubikaraik idatziriko hainbat antzerki egin zituzten; lehen aipaturikoaz gain, "Jaunaren bidetan" eta "Kresaletan" obrak. Leku askotan egin zituzten emanaldiak. Autobus bi joaten ziren; bakoitzak bere ogitartekoa eramaten zuen afaltzeko.

38. Ibilaldian ikastolako zinta moztu zueneko

- **Erref:** BRZ-003/015
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:30:35. **Bukatu:** 00:31:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ondarroako Ibilaldian, berari eskatu zioten zinta mozteko, eta ikastolako laguntzaile guztien izenean moztu zuela dio. Jende askok kuota bat ordaintzen zuen ikastola bultzatzeko.

39. Kili-kili aldizkaria banatzearren, kartzelara

- **Erref:** BRZ-003/017
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:33:07. **Bukatu:** 00:35:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Kili-kili aldizkaria egitearren, kartzelan egon zen. Apaizek egiten zuten eta zabaldu ere bai. 1969an sarekada bi egin zituzten, bata Sestao inguruko langileen artean eta beste bat abertzaleen artean. Bere etxean erregistroa egin zutenean, Kili-kili aldizkariak topatu zituzten eta Euskal Herriko mapa irudikatuta agertzen zenez, epaiketa egin zioten. Urtebeteko kartzela zigorra ezarri zioten.

40. Gerra ostean, dotrina euskaraz eta sermoiak erdaraz

- **Erref:** BRZ-004/001
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Ondarroara heldu zenean, dotrina euskaraz ematen hasita zeuden. Bertako parrokoak ez zekien ia erdaraz baina sermoia erdaraz eman beharra zeukan. Medikua tradizionalista zen eta eragin handia zeukan hizkuntzei zegokienean ere.

41. Aste Santuko kontzertua

- **Erref:** BRZ-004/002
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:04:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Tipleak zeuden bera heltzerako, eta berak hogeita hamarreko talde bat hautatu zuen. 1957ko Aste Santuan kontzertua egin zuten, elizako abesbatzarekin eta orfeoiaekin batera. Handik sortu zen gabonetako antzerkia.

42. Ikastolaren sorrera

- **Erref:** BRZ-004/003
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:04:49. **Bukatu:** 00:08:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

1957an egin zuten euskarazko antzerkia lehenengo aldiz frankismo garaian, gabonetan. Giro horretatik sortu zen ikastola. Euskaltzaleak etxeetan batzen hasi ziren. 1964 inguruan hasi zen ikastola, haurtzaindegi modura. Hasiera zelakoa izan zen kontatzen du. Berriatuako udalak baimena eman zuen eta tituludun irakaslea lortu zuten.

43. Umerik ez zutenen babesa ikastolari

- **Erref:** BRZ-004/004
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:08:53. **Bukatu:** 00:11:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Elkarte ekonomikoa sortu eta solairu oso bat erosi zuten, oinarrizko hezkuntza martxan jartzeko. Zailtasunak izan zituzten. Herritarren mugimendua izan zela dio. Umerik ez zuten herritar askok kuota ordaintzen zuten.

44. 1967an sortu zen ikastola

- **Erref:** BRZ-004/005
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:11:27. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikastolaren lehenengo urteetako lokalak zein izan ziren azaltzen du. 1964an sortu zen Kresala taldea, Txomin Agirreren "Kresala" liburuaren mendeurrenaren harira. 1967an sortu zen ikastola. Legeztatzea zelakoa izan zen dio.

45. Ikastolen gizarte segurantzak

- **Erref:** BRZ-004/006
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:15:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Hasieratik ordaindu zieten irakasleei. Ikastolak berak sortutako gizarte segurantzak zeukaten.

46. 1969an atxilotu egin zuten

- **Erref:** BRZ-004/007
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:15:16. **Bukatu:** 00:17:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Lehenengo urteetan, irakasleak fitxatuta egoten ziren baina tituluarekin defendatzen zuten beren burua. Ikastolen kontua mugimendu politikoa izan zen. Horren harira, 1969an atxilotu egin zuten, lehenengo salbuespen legea atera zutenean. Sarekada bi egin zituzten Bizkaian.

47. Espainiar banderak estaltzearen, isuna

- **Erref:** BRZ-004/008
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:17:58. **Bukatu:** 00:20:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Ondarroako koartelera eraman zuten atxilotu zutenean. Pilarika egunean, Guardia Zibilen eguna izaten zen eta meza berezia ospatzen zuten, elizan ikurrak ipinita. Egun hartan hileta suertatu zen eta espainiar banderak estali zituzten. Horregatik, 25.000 pezetako isuna jaso zuen eta, adostuta zeukaten moduan, ez zuen ordaindu.

48. Zamorako apaizentzako kartzelan

- **Erref:** BRZ-004/009
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:20:55. **Bukatu:** 00:24:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Isuna zuten apaizak sarekadan atxilotu egin zituzten. Txomini zer gertatu zitzaion kontatzen du. Hilabete egin zuten Zamorako apaizentzako kartzelan. Pilotan aritzeko modua topatu zutela kontatzen du.

49. Kartzelaldi gogorra eta bizipen politak

- **Erref:** BRZ-004/010
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:24:32. **Bukatu:** 00:28:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1969an atxilotu egin zuten eta kartzelaldi gogorra bizi izan zuen. Norbait yoga egiten lehenengo aldiz hantxe ezagutu zuen. Gauero desfilea egiten zuten, Eusko Gudariak abestuz.

50. Kili-kili aldizkariak izatearren, epaiketa

- **Erref:** BRZ-004/011
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:28:56. **Bukatu:** 00:31:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1968ko kartzelaldia laburra izango zela bazekitenez, ondo samar hartu zuten. 1969koa gogorragoa izan zen; epaiketa egin zioten, Kili-kili aldizkariak izatearren, eta hiru urterako kartzela zigorra ezarri zioten.

51. Epaiketa arintzea lortu

- **Erref:** BRZ-004/012
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:31:03. **Bukatu:** 00:34:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1969an jende asko atxilotu zuten eta Indautxura eraman zituzten. Epaiketak arintzea lortu zuten. Urtarrilean kartzelan sartu eta maiatzean epaiketa izan zuen. Funtzionarioek hogeita lau orduz zaintzen zuten.

52. Burgosko epaiketako emakumeei kantuan

- **Erref:** BRZ-004/013
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:34:54. **Bukatu:** 00:36:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Burgosko epaiketako emakumeei batera egon zen kartzelan. Patioan beste batekin batera abestu egiten zieten emakume haiei. Kanta abesten du.

53. Txema Unzueta abokatu

- **Erref:** BRZ-004/014
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:38:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Epaiketaren biharamunean, etxera bidali zuten. Txema Unzueta izan zuen abokatu. Hiru urteak bete zituen kartzelan.

54. 1973ko sarekada Ondarroan

- **Erref:** BRZ-004/017
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:42:42. **Bukatu:** 00:46:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Apaizak epaitzeko gotzainaren baimena behar zen. 1973n sarekada handia egin zuten Ondarroan, beste Salbuespen Lege batengatik. Sarekadetan beti apaizen bat atxilotzen zuten. Ondarrutar bati gertatutakoa kontatzen du.

55. 1973ko sarekadako arduraduna

- **Erref:** BRZ-004/018
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:46:03. **Bukatu:** 00:48:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1973an Montejurrara joaten zen emakume karlista bat ere atxilotu zuten sarekada hartan. Capitan Hidalgori buruzkoak kontatzen ditu. Bera ez zuten ukitu baina herritar asko egurtu zituztela dio.

56. Ondarruko patroï bat torturatu zuten

- **Erref:** BRZ-004/019
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:48:24. **Bukatu:** 00:52:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1973ko abenduak egun batean, lanera zihoala atxilotu zuten eta Bilbora eramán. Bera atxilotzeko asmatu zuten istorioa kontatzen du. Ondarruko patroï bat torturatu egin zuten.

57. Poliziaren montajea

- **Erref:** BRZ-004/020
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:52:07. **Bukatu:** 00:55:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Añoberos gotzaina bisitan joan zitzaionean, torturaren berri eman zion Imanolek eta gotzainak ez zuen Imanol epaitzeko baimenik eman. Torturatu zuten ondarrutar patroïari epaiketa arin egin zioten eta bera testigu eramán zuten. Poliziek asmatu zuten montajea oso txarra zenez, biharamunean etxera bidali zuten ondarrutarra.

58. 1975eko sarekadan 82 urteko emakumea beldurrez hil

- **Erref:** BRZ-004/021
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:55:50. **Bukatu:** 00:58:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1975ko Salbuespen Legearen harira, berriz atxilotu zuten Imanol. Koldo Arriola hil egin zuten orduan. 82 urteko emakume baten etxera joan zen polizia eta atea bota eta metrailetekin sartu zirenean, momentuan bertan hil zen emakumea.

59. Meza politikoak eta Espainiako himnoa elizan

- **Erref:** BRZ-006/002
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:00:02. **Bukatu:** 00:04:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Guardia zibilak norbanako gisa joango ziren mezatarra. Bestela, Pilarika egunean, beraien egunean, izaten zuten meza. Udalaren mezetara Guarda Zibilen burua joaten zen eta meza politikoak ere egiten ziren. Kontsakrazioan Espainiako himnoa jotzen zen. Berak hori kendu egin zuen eta sarrera-irteeretan bakarrik jarri. Meza ere orduz aldatu zuten momentu batean, jada meza politikoetara herritarrik ez zelako joaten. Zenbaitek sekula ez zion Imanol deitu, beti "don Manuel".

60. 1964 inguruan hasi ziren mezak euskaraz

- **Erref:** BRZ-006/003
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:04:22. **Bukatu:** 00:06:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Vatikanoko II. Kontzilioak aldaketa nabarmenak ekarri zituen. Ordura arte mezak jendeari bizkarra emanda eta latinez ematen zituen apaizak. 1964 inguruan hasiko ziren mezak euskaraz. Garrantzitsua izan zen Lapurdin Belokeko monasterioan beneditarrek euskarazko materiala prestatzen egindako lana. Sortu ere egin behar izan zuten materiala. Kantak euskaraz aurretik ere abesten ziren.

61. Garai batean meza "entzun" bakarrik; abadeak eta sermoiak

- **Erref:** BRZ-006/005
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:10:07. **Bukatu:** 00:12:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Meza latinez eta jendeari bizkarra emanda ematen zenean, herritarrek ez zuten mezan parte hartzen, entzun bakarrik; "meza entzun" esaten zen. Sermoiak euskaraz edo gaztelaniaz izaten ziren pulpitutik. Mezak bertako hizkuntzan emateko aukera jarri zenean, meza batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz. Ondarroan zeuden abadeak eta bakoitzaren sermoiak.

62. On Manuel abadearen "komunitate-aitortzak"

- **Erref:** BRZ-006/006
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:12:46. **Bukatu:** 00:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Konfesioak bakoitzaren hizkuntzan egiten ziren. Ondarroako elizan lau aitorleku zeuden. Zer abade egoten zen bakoitzean. Umeak ilaran jartzen ziren konfesatzeko. On Manuel nekatu egiten zen umeen konfesioak entzuten eta aitorlekutik irtenda absoluzioa ematen zien denei.

63. Elizak seigarren mandamentuari ematen zion garrantzia

- **Erref:** BRZ-006/009
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:16:28. **Bukatu:** 00:19:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Garai batean elizak garrantzia handia ematen zien seigarren eta bederatzigarren mandamentuei, sexu-harremanekin lotutakoei. Emakume bat ezkondu gabe haurdun geratzen bazen, markatuta geratzen zen. Hortik dator genero berdinekoen arteko harremanak ez onartzea ere.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com